

Gizonduz

EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA. GIZONEI ETA MASKULINITATEEI BURUZKO AURREIKUSPEN ESPEZIFIKOAK.



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

AURREKARIAK

- ▶ Emakunde sortzeko Legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko **berdintasun-politiken jarraibide orokorrak jasoko dituen plan orokor bat** egitera behartzen dute Emakunde.
- ▶ **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia (VIII. Plana)** EAEko botere publikoen jarduna berdintasunaren eremuan orientatzeko erreferentzia-esparrua da.

XEDEA ETA IRISMENA

- ▶ Euskal botere publikoei **jarraibide eta orientabide** homogeneoak ematea, beren politiken bidez gizarte-antolaketa **demokratikoagoa, bidezkoagoa, berdintasunezkoa, jasangarriagoa eta indarkeria matxistarik gabea eraikitzen** lagun dezaten.
- ▶ **2030era arte** duen denbora-irismena eta epe luzerako ikuspegia bat datoz 2030 Agendarekin, Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta Europar Batasuneko beste plangintza estrategiko batzuekin.

BESTE PROGRAMA-ESPARRU BATZUEKIN LERROKATZEA

- ▶ **Euskadi Basque Country 2030 Agenda**
- ▶ **Genero-berdintasunerako Europako estrategia 2020-2025**
- ▶ **Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko (Istanbulgo Hitzarmena, 2011)**
- ▶ **Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentzia (1995)**
- ▶ **Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzen eta berdintasunaren aldeko herri-ituna**

BERDINTASUNERAKO LEGEAREKIKO LOTURA

- ▶ **Legeak beharrezkoak dira, baina ez dira nahikoak** desberdintasunaren eta generoan oinarritutako indarkeriaren arazo unibertsal, estruktural eta dimentsioaniztuna gainditzeko.
- ▶ Estrategia **plangintza-tresna** bat da, eraginkortasuna ematen duena eta EAEn emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen aginduak artikulatzeko aukera ematen duena.
 - ▶ 16. artikulua.-Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Planak “Legegintzaldi bakoitzean, Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar du. Plan horretan, hain zuzen, euskal herri-aginteeek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasoko dira”.



**EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN
BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA:**

**GIZONEI BERARIAZ ZUZENDUTAKO
NEURRIAK**

8. HELBURUA: ETXEKO ETA ZAINKETAKO LANA

- ▶ Etxeko eta zainketako lanetan EAEn dagoen **genero-arrakala gutxienez erdira murriztea**.
- ▶ Berdintasunerako ahalmen eraldatzaile handia du helburu honek, EAEn emakumeek jasaten duten **etxeko lanen eta zainketa-lanen bolumena ikusarazi, baloratu eta aitortzea eta murriztea** du xede. Hain zuzen ere, agerian uzten du gainerako eragileak erantzule egin behar direla, eta, **bereziki, gizonak interpelatzen ditu**.

13. PRINTZIOPIO GIDARIA: GIZONEN INPLIKAZIOA

- ▶ **Gizonen kontzientziazioa, erantzukizuna, parte-hartzea eta inplikazioa** berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka.
- ▶ **Berdinzaleak ez diren maskulinitateak zalantzan jartzea eta erauztea**, emakumeak ahalduntzeko lehentasunezko lana indartzen eta osatzen laguntzeko, eta pertsona guztien giza garapena berdintasunezkoa, bidezkoa eta jasangarria izan dadin.

8. ILDOA. BERDINTASUNAREN IKUSPEGI KONPLEXUAGOA POLITIKA PUBLIKOETAN

- ▶ **GO3.8. Gizonak eta maskulinitateak: Maskulinitateen ikuspegia txertatzen duten eta, zeharka eta ekintza espezifikoaren bidez, gizonak berdintasunaren alde inplikatzea eta berdintasunezkoak ez diren maskulinitateak desagerraraztea sustatzeko neurriak hartzen dituzten erakunde publikoen kopurua handitzea.**

13. ILDOA. OSASUNERAKO ETA ONGIZATERAKO ESKUBIDEA

- ▶ **EA6.1. Osasun-politikak:** Osasuna, laneko osasuna barne, sustatzeko eta babesteko politikak, estrategiak eta programak bultzatzea, eremu horretan **emakumeek eta gizonek dituzten premia desberdinak** kontuan hartuta, eta **desberdintasun biologikoak aintzat ez hartzeagatik edo batzuei eta besteei lotutako estereotipo sozialengatik gertatzen diren diskriminazioak ezabatuta.**
- ▶ **EA6.2. Ohitura osasungarriak eta jokabide arriskutsuak:** Emakumeen eta gizonen **premia ezberdinak kontuan hartuta**, adin guztietan, norberaren zaintzaren eta **ohiko jardunbideen ikaskuntza zein garapena sustatzea**. Halaber, jarduera fisikoa eta jokabide arriskutsuen prebentzioa sustatzea.

13. ILDOA. OSASUNERAKO ETA ONGIZATERAKO ESKUBIDEA

- ▶ **EA6.3. Hezkuntza afektiboa eta sexuala: Sexualitate askea, positiboa eta osasungarria sustatzea** bizitzako etapa guztietan, baita hezkuntza afektibo eta sexual integrala, berdintasunezkoa eta sistematikoa ere, **emakumeen eta gizonen premia desberdinak kontuan hartuta.**

15. ILDOA. ZAINKETEN ETIKA, POLITIKA ETA PRAKTIKA

- ▶ **GA7.2 Politika:** Zainketen banaketa ekitatiboa sustatzea bizikidetza-unitateetan parte hartzen dutenen artean eta pertsonen arteko, gizarteko eta laneko harremanetan, **batez ere gizonen artean.**
- ▶ **GA7.3 Praktika:** Zainketa ikasi eta praktikatzeko aukera emango duen pedagogia eta didaktika sustatu eta garatzea, **batez ere gizonen artean.**

16. ILDOA. ERANTZUNKIDETASUNA ZAINKETETAN

- ▶ **GA7.6 Enplegu-egiturak egokitzea:** EAEko administrazio publikoek laneko denbora eta tarteak malgutzeko eta berrantolatzekeo abian jartzen dituzten **neurrien kopurua handitzea**, baita zainketan, batez ere gizonen artean, **kontziliazio erantzunkidea erraztuko duten aldaketak ahalbidetzeko ere enpresa-kulturan eta - jardunean.**

16. ILDOA. ERANTZUNKIDETASUNA ZAINKETETAN

- ▶ **GA7.7 Gizonen inplikazioa: Zainketez arduratzen diren gizonen kopurua handitzea, eta dauden eskubideak eta laguntzak** seme-alaben eta mendeko beste pertsona batzuen etxeko eta zainketako beharrei erantzuteko erabiltzea (jaiotzako, adopzioko eta harrerako baimen berdinak eta besterenezinak, eszedentziak, baimenak eta lanaldi-murrizketak, etab.).

18. ILDOA. KULTURA, KIROLA ETA HEDABIDEAK

- ▶ **GA8.7 Kirola:** Berdintasuna sustatzea jarduera fisikoan eta kirolean (genero-estereotipoak ez dituzten kirol-modalitateak eta -diziplinak hautatzea, emakume adingabe, nerabe eta helduengan praktika jarraitua egitea eta emakumeek eta gizonek kirola egitean sektore maskulinizatuetan eta feminizatuetan, hurrenez hurren, aurki ditzaketen diskriminazioak ezabatzea.

19. ILDOA. TRANTSIZIO EKOLOGIKOA ETA JUSTIZIA KLIMATIKOA

- ▶ **GA9.1. Begirada ekofeminista:** Klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko hausnarketa- eta erabaki-guneetan genero-ikuspegia eta ekofeminismoaren ekarpenak txertatzea, Gune horietan emakumeen presentzia eta lidergoa sustatzea, baita gizonen kontzientziazioa eta inplikazioa ere, ingurumena errespetatzeari dagokionez.

20. ILDOA. ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA.

- ▶ **GA9.5 berdintasunezko zientzia eta teknologia seguru, inklusibo eta irisgarri baterantz: Zientziaren eta teknologiaren eremuan paradigma-aldaketa bat **sustatzea**, eredu maskulinizatu eta lehiakor batean oinarrituta, **eredu berdinzaleago, seguruago, inklusiboago, eskuragarriago eta emakumeen eta gizonen behar desberdinekiko sentikorrago baterantz aurrera egiteko.****

21. ILDOA. GIZARTE- ETA LURRALDE- KOHESIOA

- ▶ **GA9.13 Mugikortasun jasangarria eta berdintasunezko irisgarritasuna:** Mugikortasun jasangarriko ekimenak sustatzea, garraio publikoa emakumeen beharretara egokitzea (konektibitatea, orduategia eta maiztasunak, segurtasuna, irisgarritasun fisikoa, informazioa, etab.) eta gizonak garraio publikora erakartzea.

23. ILDOA. GIZONEK BERDINTASUNAREKIN DUTEN KONPROMISOA

- ▶ **GA10.6 Kontzientzia hartzea:** Gizonekin esku hartzeko guneak eta programak garatzea, **botereari, indarkeriari eta pribilegio maskulinoei buruz hausnartzeko eta kontzientziatzeko**, baita horiek emakumeengan, gizonengan eta gizarte osoan eragiten dituzten kostuei buruz ere.

23. ILDOA. GIZONEK BERDINTASUNAREKIN DUTEN KONPROMISOA

- ▶ **GA10.7. Berdintasunerako ekintza: Gizonen konpromisoa, inplikazioa eta intzidentzia eraginkorra **sustatzea**** berdintasun erreala eraikitzeko eta indarkeria matxista ezabatzeko, bereziki gazteena eta lidergo-postuetan daudenenak, **aldaketaren eragile bihur daitezten**, eredu izan daitezten eta sinergiak sor ditzaten, parte hartzen duten gune guztietatik.

26. ILDOA. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

- ▶ **EK11.6. Indarkeriazko portaerak:** Emakumeen aurkako indarkeria matxista erabili duten edo jokabide sexista problematikoak dituzten adingabeek, nerabeek eta helduek indarkeriazko beren portaerari berriro ekitea prebenitzea.